



KULTU-ZENTROEN LEGEA ETA ERLIJIOEN MAPA SOZIOLOGIKOA EUSKADIN

Euskadiko komunitate islamikoekin lankidetzan aritzeko ADOS Aholku Batzordea 2018ko apirilean eratu zen, eta ordutik hona, ekintza asko egin dira Eusko Jaurlaritzaren jardue-ra-programaren arabera, euskal komunitate islamikoarekin batera bizikidetzat sustatzeko. Zirkular honetan bi urrats berriri buruzko informazioa eskaintzen da: Lekuen, kultu-aretoen eta erlijio-aniztasunaren Legea eta Euskadiko erlijioen mapa soziologikoa.

ESPEROTAKO KULTU-ZENTROEN LEGEA

Eusko Jaurlaritzak Euskadin erlijio-aniztasuna babesteko eta bermatzeko eta kultu-zentro berriak irekitzeko lege-proiektua onartu du, euskal gizartearen bizikidetzat eta erlijio-askatasunerako eskubidea babesteko.

Lege hau onartuta, aukera ematen da aniztasun horri babes juridikoa emateko, Euskadin finkatutako erlijio guztien bizikidetzat eta elkarrizketa baldintza beretan babestuz eta bermatuz, bai eta beren kultu-zentro edo -lekuak irekitzeko eta erabiltzeko duten oinarriko eskubidea ere.

Udalek beren hirigintza-antolamenduko planetan jaso beharko dute, "lurzoruaren erabilgarritasunaren arabera", udalerrriak behar dituen erlijio-ekipamenduetarako espazioen erreserba.

EUSKADIKO ERLIJOEN ARTEKO KONTSEILUA

Kultu Zentroen Legeak Erlijioen arteko Kontseilua-
ren sorrera arautzen du. Kontseilu hori erlijioen eta
kulturen arteko bizikidetzat babesteko eta sustatze-
ko sortu zen, erlijio-aniztasuna eta haren adieraz-
pen guztien eskubide eta betebeharrak errespeta-

tzean oinarrituta.

Kontseilu hori elkarbizitarako erlijioen arteko elkar-
rriketarako lehentasunezko esparrua izango da. Er-
lijioa aitzakiatzat hartzen duen edozein terrorismo-a-
dierazpenen aurrean zein xenofobia, islamofobia edo
arrazakeria mota ororen aurrean gizarteak ematen
duen erantzunean erreferente gisa jardutea izango
da bere eginkizun nagusietako bat.

Eusko Jaurlaritzako, hiru Foru Aldundietako, Udale-
tako, elizetako, konfesioetako eta erlijio-elkarteetako
ordezkariak, herritarren elkarteak eta gaitasun aitortu-
a duten pertsonak osatuko dute.

Azken osaera eta funtzioak eta funtzionamendu-
arauak Eusko Jaurlaritzaren dekretu baten bidez
zehaztuko dira.

Gobernu Kontseiluak lege-proiektua onartu ondoren,
dokumentua Eusko Legebiltzarrerara bidaliko da, izapi-
detu eta behin betiko onar dezan.

EUSKADIKO ERLIJOEN LEHEN MAPA ARGITARATU DA

Eusko Jaurlaritzak Euskadiko Erlijioen Mapa soziolo-
gikoa aurkeztu du, euskal lurraldean erlijioen geogra-
fia soziala eta haren ezarpena zein den jakiteko eta
kultu-zentroen mapa eguneratzeko.

KONTRASTE-ELKARRIZKETAK

Lehen kalkulu estatistikoa egin ondoren, zenbait elkarrizketa egin ziren, eta horietan honako erlijio-kredo hauei buruzko informazioa jaso zen:

- Islama.
- Eliza Ebanjelikoa.
- Jehovaren Lekukoak.
- Eliza ortodoxoa.
- Azken egunetako Jesukristo Santuen eliza.

Elkarrizketetan lortutako informazioa baliagarria izan zen aurrez egindako estimazioa hobetzeko, erabilitako iturrietan jasotzen ez ziren erlijio-kredoan datuak lortzeko eta proiektua kontrastatu eta EAEko erlijioen iritzia ezagutu ahal izateko.

Eraitza nagusiak

Erljio katolikoa EAEn bizi den guztizkoaren %90 da, eta EAEko biztanleria osoaren %69,1 da (1.489.864 pertsona). Gainerako erlijioek pisu txikiagoa dute EAEko biztanleria osoan. Islama %4,1 da (89.487), eta protestantea –Ebanjelikoa– %1,4, neurri handi batean azken 20 urteotan atzerriko jatorriko biztanleak iritsi direlako.

Atzerriko jatorriko biztanleen artean, erlijio katolikoa da gehiengoa (%45), baina ehuneko hori nabarmen txikiagoa da bertakoen artean baino (%69,1); izan ere, garrantzi handiagoa hartzen dute beste erlijio batzuek, hala nola musulmanak (%22,4); protestanteak –Ebanjelioak barne–, %10,9; eta ortodoxoak, atzerriko jatorriko biztanle guztien %8,9. Gainerako erlijio gutxituek oso ehuneko txikiak dituzte, eta biztanleria ez-fededuna %9,1 izango litzateke; ehuneko hori bertakoena baino nabarmen txikiagoa da, eta etorkinen kolektiboan erlijiotasun handiagoa adierazten digu.

EAEko erlijio-aniztasuna areagotu egin da azken bi hamarkadetan migrazio-fluxuak agertu direlako.

Mapa

SARS-CoV-2 pandemiaren agerpenak atzeratu egin zuen 2020ko lehen hiruhilekoan publiko egiteko programatutako proiektu horren aurkezpena. Orain, 2021eko ekainean, jendaurrean aurkezteko aldeko baldintzak bete dira.

Euskadiko erlijioen mapa ADOS Aholku Batzordearen webgunearen bidez eta zuzenean esteka honen bidez ikusi ahal izango da: <https://labur.eus/ui2IX>



ADOS Aholku Batzordearen Azken Bilera

ADOS Aholku Batzordeak ohiko bilera egin zuen maiatzaren 20an. Lanean jarraitzen dugu euskal gizartean errotutako islama sustatzeko, hainbat ekin-tzaren bidez.

ADOS Batzordearen dokumentu nagusiak esteka honetan daude eskuragarri: <https://www.euskadi.eus/ados-batzordea/web01-s1lehbak/eu/>

BILERA GIPUZKOAKO UDALEKIN

Gipuzkoako hainbat Udalekin lanean ari gara, lurralde horretan konponbide bat aurkitzeko, erritu musulmanean ehorzketak egin ahal izateko. Maiatzaren 17an, lehen bilera bat egin zen Donostian, eta uztailaren lehen hamabostaldian bigarren bilera bat egitea aurreikusten da.

Aurreko zirkularrean Arrigorriagako hilerrian egokitutako espazioari buruzko informazioa eman zen (https://www.euskadi.eus/contenidos/informacion/comision_ados_intro/eu_def/CIRCULAR-MARZO-COMISION-ADOS_eus.pdf)

PANDEMIARI BURUZKO AZKEN INFORMAZIOAK

Pandemiaren bilakaera positiboa izan da datu eta adierazle guztietan, apirilaren amaierako kotarik altue-netatik. Metatutako intzidentzia-tasa 546,89ra iritsi zen orduan; gaur (ekainak 21) 114koa da. ZIUen okupazioa 195 ohera iritsi zen; gaur 50 ohe dira. Apirilaren 19tik 24ra 49 pertsona hil ziren; ekainaren 7tik 13ra, 9. R_0 1,23an kokatu zen apirilean; gaur 0,86an dago.

Uda honetarako aurreikuspenak onak dira. Indarreen dauden neurriak jasotzen dituen dekretua eskuragarri dago honako estekan: [euskadi.eus/dekretua](https://www.euskadi.eus/dekretua).

RAMADANAREN BALANTZE ONA

Pandemiak eragotzi egin du, bigarren urtez jarraian, Ramadana normaltasunez ospatzea. Hala ere, osasun publikoko neurriak betetzearen ikuspuntutik, ospakizunaren garapena positiboa izan da, eta aipatzeko moduko arazorik ez da egon.

